euskara I castellano



# Ayudas para conservar y mejorar **tu casa** y **tu comunidad**

## Guía abreviada

sobre las ayudas y subvenciones para obras y reformas en vivienda habitual y comunidades de propietarios

SEA UNECA
EMPRESAS DE CONSTRUCCIÓN DE ÁLAVA
ARABAKO ERAIKUNTZA ENPRESAK



## Ayudas para obras en **tu casa**

- Si tienes pensado hacer obras de **mantenimiento para mejorar la construcción,** la habitabilidad y el confort de tu vivienda: modificar la instalación eléctrica, de gas y de fontanería, aislarla de ruidos, hacer reformas de albañilería, carpintería, pintura...
- Si quieres hacer **tu casa más eficiente**: cambiar la calefacción, poner una nueva caldera, mejorar el aire acondicionado, instalar paneles solares o aislamiento térmico, cambiar las ventanas...
- Si quieres hacer **tu casa más accesible:** adaptando el baño, cambiando la distribución, eliminado barreras arquitectónicas internas...

Tienes que saber que hay **interesantes ayudas pública**s que cubren determinados gastos: el importe de las obras, los honorarios de los profesionales y administradores de fincas así como las tasas e impuestos no repercutidos.

Sólo están **excluidas de la subvención** las obras con objetivo exclusivamente decorativo u ornamental, las intervenciones en balcones y terrazas y los gastos en mobiliario o electrodomésticos.



### ¿Qué tipos de ayudas hay?

- **Subvención a fondo perdido,** una cantidad que dependerá, entre otras cosas, del tipo de obra, del presupuesto y de los ingresos de la unidad familiar.
- **Préstamos cualificados** o sin intereses que pueden alcanzar hasta el 100% del presupuesto protegible
- **Exenciones fiscales.** Con la posibilidad de deducir de la cuota íntegra del IRPF un determinado porcentaje fijado por la Diputación Foral para cada ejercicio.



### ¿Quién puede beneficiarse de estas ayudas?

A partir de un **presupuesto de obras mínimo de 3.000 euros** pueden acceder a las ayudas:

- Las personas propietarias, arrendatarias o usufructuarias de viviendas habituales con más de 20 años de antigüedad
- Que formen parte de una unidad convivencial con ingresos máximos de 25.000 euros anuales (para solicitar subvenciones a fondo perdido) o de 39.000 euros anuales (para solicitar préstamos cualificados)

### Otros requisitos

Se requiere la licencia municipal de obras, no se exige el ITE excepto en viviendas unifamiliares y caseríos y las obras deberán ejecutarse dentro del año siguiente a la concesión de las ayudas.



## Ayudas para obras en **tu comunidad**

- Si en tu comunidad de propietarios se van a realizar obras de **conservación, seguridad o habitabilidad,** tales como fachadas, terrazas y balcones, cubiertas, seguridad, arreglos de portal o escaleras...
- Si se quiere mejorar **la accesibilidad**: renovación de ascensores, supresión de barreras arquitectónicas (cota cero), reforma de accesos, renovación de equipos...
- Si el objetivo es la **mejora de la eficiencia energética:** calefacción y agua caliente, refrigeración y ventilación, instalaciones fotovoltaicas, iluminación, aislamiento térmico, sustitución de carpintería exterior, cerramiento de terrazas y balcones en todo el edificio.



También hay **interesantes ayudas públicas** otorgadas colectivamente a la comunidad y otras a título individual a los propietarios, arrendatarios o usufructuarios que la componen, que cubren el importe de las obras, los honorarios de los profesionales y administradores de fincas así como las tasas e impuestos no repercutidos.

Sólo están **excluidos de la subvención** los elementos ornamentales, las obras de demolición, el vaciado de edificios o redistribución de tabiquería interior que dé como resultado el aumento del número de viviendas en la comunidad.

### Tipos de ayudas

Al igual que en el caso de las obras de particulares existen **subvenciones a fondo perdido y préstamos cualificados** a la comunidad y a los residentes y **exenciones fiscales** solo para los residentes



### Requisitos para obras comunitarias

El edificio debe tener una antigüedad mínima de 20 años, excepto si presenta daños que afecten a la seguridad o si se trata de la supresión de barreras arquitectónicas, existiendo en la comunidad una persona mayor de 65 años con movilidad reducida.

El edificio debe haber pasado la ITE para formalizar la solicitud, se requiere la licencia municipal de obras y hay un plazo de 18 meses para la ejecución de las obras después de concedida la subvención.

## + info

**HAZ CLIC AQUÍ**
si quieres saber qué **empresas asociadas a UNECA** gestionan este tipo de ayudas

**HAZ CLIC AQUÍ**
si quieres **informarte con más detalle** sobre las ayudas actualmente vigentes

euskara | castellano

# **Etxea eta erkidegoa** zaindu eta hobetzeko laguntzak



Ohiko etxebizitzetan eta jabeen erkidegoetan obrak eta birgaiketak egiteko laguntzei eta dirulaguntzei buruzko

**gida laburra**

SEA UNECA

EMPRESAS DE CONSTRUCCIÓN DE ÁLAVA
ARABAKO ERAIKUNTZA ENPRESAK

## **Etxean** obrak egiteko laguntzak



- Zure etxebizitzaren eraikuntza, **bizigarritasuna eta erosotasuna hobetzeko mantentze-lanak** egiteko asmoa baduzu: instalazio elektrikoa, gasaren instalazioa edota hoditeria aldatu, etxea zaratetatik isolatu, igeltserotza-, arotzeria- eta pintura-lanak egin...
- **Etxea efizienteagoa** izatea nahi baduzu: berogailua aldatu, beste galdara bat jarri, aire girotua hobetu, eguzki-panelak edo isolamendu termikoa jarri, leihoak aldatu...
- **Etxea irisgarriagoa** egin nahi baduzu: komuna egokitu, antolaketa aldatu, barruko oztopo arkitektonikoak kendu...

Jakin ezazu gastu zehatz batzuk estaltzen dituzten **laguntza publiko interesgarriak** daudela: obren zenbatekoa, profesionalen eta finka-administratzaileen ordainsariak edota jasanarazi gabeko tasak eta zergak estaltzen dituzte.

**Dirulaguntzatik kanpo geratzen dira** dekoratzeko edo apaintzeko xede hutsa duten obrak, balkoi eta terrazetan egiten diren esku-hartzeak eta altzari nahiz etxetresna elektrikoen gastuak.

## Zer-nolako laguntzak daude?



- **Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak:** kopurua, besteak beste, obra motaren, aurrekontuaren eta familia-unitatearen diru-sarreren araberakoa izango da.
- **Mailegu kualifikatuak** edo interesik gabekoak: aurrekontu babesgarriaren % 100 arte irits daitezke.
- **Zerga-salbuespenak:** foru-aldundiak ekitaldi bakoitzerako finkatzen duen ehuneko jakin bat kendu ahalko zaio PFEZren kuota osoari.

## Nork jaso ditzake laguntza hauek?



**Obren gutxieneko aurrekontua 3.000 eurokoa bada**, honako hauek izan daitezke laguntzen onuradunak

- 20 urtetik gorako antzinatasuna duten ohiko etxebizitzen jabeak, errentariak edo gozamendunak
- baldin eta bizikidetza-unitateak urtean gehienez ere 25.000 euroko diru-sarrerak badauzka (itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak eskatzeko) edo urtean gehienez ere 39.000 euroko diru-sarrerak badauzka (mailegu kualifikatuak eskatzeko)

## Bestelako betekizunak

Udalaren obra-baimena behar da; ez da eraikinen ikuskapen teknikoa eskatzen (familia bakarreko etxebizitzetan eta baserrietan salbu), eta obrak laguntza esleitu eta urtebetean egin behar dira.

## **Erkidegoan** obrak egiteko laguntzak



- Zure jabeen erkidegoan **kontserbazio-, segurtasun- edo bizigarritasun-lanak** egingo badira; hala nola, fatxadak, terrazak eta balkoiak, estalkiak, segurtasuna, atariaren edo eskaileren konponketak...
- **Irisgarritasuna hobetu** behar bada: igogailuak berritu, oztopo arkitektonikoak kendu (zero kota), sarrerak birgaitu, ekipoak berritu...
- **Energia-eraginkortasuna hobetu** nahi bada: berogailua eta ur beroa, hozketa eta aireztapena, instalazio fotovoltaikoak, argiztapena, isolamendu termikoa, kanpoko arotzeria aldatu, eraikin osoko terrazak eta balkoiak itxi...



**Laguntza publiko interesgarriak** daude baita ere: batzuk erkidego osoari ematen zaizkio, eta beste batzuk erkidegoko jabe, errentari edo gozamendunei, norbanakoaren izenean. Bada, laguntzek obren zenbatekoa, profesionalen eta finka-administratzaileen ordainsariak edota jasanarazi gabeko tasak eta zergak estaltzen dituzte.

**Dirulaguntzatik kanpo geratzen dira** apaingarriak, eraisketa-lanak, eraikinen hustuketa eta barruko trenkada-multzoaren berrantolaketa, erkidegoan etxebizitza gehiago sortu nahi badira.

## Laguntza motak

Partikularren obretarako bezalaxe, **itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak** eta **mailegu kualifikatuak** daude, bai erkidegorako, bai egoiliarrentzat; halaber, **zerga-salbuespenak** ezarri ahal zaizkie egoiliarrei.

## Erkidegoko obretarako betekizunak



Eraikinak 20 urteko antzinatasuna eduki behar du gutxienez, segurtasunari eragiten dioten kalteak konpondu nahi badira izan ezik edo, erkidegoan 65 urte baino gehiago dituen eta mugikortasuna murriztuta duen pertsonaren bat badago, oztopo arkitektonikoak kendu nahi badira izan ezik.

Eskaera egin ahal izateko, eraikinak eraikinen ikuskapen teknikoa eginda eduki behar du; udalaren obra-baimena behar da, eta obrak laguntza esleitu eta 18 hilabeteko epean egin behar dira.

## + info

**EGIN KLIK HEMEN,** laguntza mota hauek **UNECAren zein enpresa elkartuk** kudeatzen dituzten jakin nahi baduzu

**EGIN KLIK HEMEN,** gaur egun indarrean dauden laguntzei buruzko xehetasun gehiago eduki nahi badituzu